

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	30 - Bidegi, S.A.
Atala:	3010 - Bidegi, S.A.
Programa:	100 - Errepideen Eraikuntza eta Hobekuntza
Funtzionala:	453 - Errepideak

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako AP-8/AP-1 Autobide, bere instalazio eta azpiegitura honekin erlazionatutako jatorriko zerbitzuen (Zerbitzuguneak eta Garraio zentroak) mantenu, kontserbazio eta ustiapena. HELBURUA: AP-8/AP-1 Autobideen erabilpen segurua eta eroso bermatzea.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

AP-8/AP-1 autobideek Gipuzkoako goi-mailako errepidea osatzen dute eta aldi berean Europar ibilbideko sarearen partaide dira.

2017ko ekitaldiari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da:

Eguneko Batezbesteko Intentsitatea (EBBI):

AP-8: 32.479

AP-1: 16.329

Diru sarrera garbiak: 121.754.720

Deskontuak: 22.416.289

Azpiegituren mantenu eta ohiko kontserbazio lanez arduratzen den operadorearen kostea: 32.490.963

Inbertsio aipagarriak:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ahalmen Handiko Sareko zenbait azpiegituretarako kobru-sistema". Proiektuaren erredakzioa eta obraren exekuzioa dagoeneko buruturik, kobru-sistema martxan aurkitzen da 2018ko urtarilaren 9az geroztik.

"GI-632 errepidearen Antzuola-Bergara zatiko saihezbidea". Lanak bere osotasunean 2019ko martxoan amaitzea aurreikusten da.

Bidegik Sindikatutako Bankuarekin eta Europako Inbertsio Bankuarekin (EIB) dituen maileguen bilakaerari dagokionez, hasieran jaso zen 895.800.000 ko finantzaketatik, kreditu komertzialaren kontratua berregituratu ondoren, 2017ko abenduaren 31an amortizatze dagoen zenbatekoa 769.137.128 da.

Beharraren eboluzioa:

Indarrean dauden AP-8 eta AP-1 autobideen Esku-hartze, Kontserbazio eta Mantentze kontratuak 2018ko ekainaren 6an amaitzen direnez, 2017ko abenduan lizitatu zen eta 2018ko maiatzean Gipuzkoako lurraldean AP-8, GI-20, GI-632 eta AP-1 errepideak eta hauekin lotutako adarrak eta mota guztietako instalazioak, aparkalekuak, partzelak eta eraikinak zerbitzuguneak eta ostalaritzako guneak izan ezik ustiatzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko zerbitzuen ematea esleitu da.

Ezohiko Kontserbazio Bost Urteko Planaren betetzeari dagokionez, 2017an planean jasotako zenbatekoa bere osotasunean esleitu da.

Erabiltzaileari arreta optimizatzea. Aritzetan bezeroaren arreta zentro berri bat ezarri da eta operadora da bere kudeaketaz arduratzen dena.

Finantza betebeharrak betetzea. Bidegik bere finantza-konpromiso guztiak bete ditu, EIBaren eta Banku Komertzialaren mailegu guztiak amortizatuz, kontratu bidezko derrigorrezko egutegia bete ondoren. Gainera, Banku Komertzialaren maileguari dagokionez, beste 5.000.000 euro amortizatu dira.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan, ahalmen handiko bide ardatzeko zati batzuetarako Kobrantza Sistema (freeflow) martxan aurkitzen da 2018ko urtarilaren 9az geroztik.

Beasain-Bergara korridorea amaitzea. Antzuola-Bergara zatiko lanak exekuzioan aurkitzen dira eta 2019ko martxoan amaitzea aurreikusten da.

Nori zuzendua:

AP-8/AP-1 autobideetako erabiltzaileak.

Estrategia del programa**1. Baliabideak (inputak):**

AP-8/AP-1 azpiegitura/gestio tresnak.

2. Garatu beharreko

Gestio tresna espezifikoak ezartzea/Ustiapen eta ezohiko kontserbazio planaren idazketa/Planen garapena.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Bide-sareko mugikortasuna

Programaren arau esparrua:

- Ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauren testu bateratua onartzekoa.
- Bidegiren eraketaren 43/2002 Foru Dekretua.
- 7/2002 Foru Araua.

2015-2019 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO JARDUKETA, ENTITATEARENA

Helburu estrategikoa: Gipuzkoa modernizatzeko gauzatzeko dauden proiektuei ekitea


Proiektu estrategikoa: Gipuzkoako biribilgunea

Urteko helburua: BIDEGI foru sozietaterako eta garapen teknologikoetarako plan ekonomiko-finantzarioa finkatzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Erreala	Agintaldiko helburua
Zorra/Ebitda ratioaren bidez zehaztutako finantza apalankamenduaren indizea	Kopurua	9,80	9,27	8,76	5,51

Joera

Zorra/Ebitda ratioaren bidez zehaztutako finantza apalankamenduaren indizea – Kopurua



Memoria

(HE.36) BIDEGI Foru Sozietaterako eta garapen teknologikoetarako plan ekonomiko-finantzarioa finkatzea. BIDEGI Foru Sozietateak Zorra/EBITDA ratioa 2017ko ekitaldian %8,76 izan da. 2016ko ekitaldian %9,80 izan zen. Horrenbestez, ratioa aurreko ekitaldiari dagokionez %10,61ean murriztu da, foru sozietatearen egoera ekonomiko-finantzarioa egonkortuz.

Helburu hori lortu ahal izateko, foru sozietateak hainbat jarduera jarri ditu martxan: sozietatearen jardueran baliabide teknologiko berritzaileak barneratu dira, erabiltzaileari eskaintzen den arreta zerbitzua hoberena izateko ekintzak burutzen dira, sozietatearen zorpetze maila eta karga finantzarioa murrizteko ekintzak

Memoria

burutu dira

2017an aipatu behar da Banku Komertzialarekin duen maileguaren kontratuko baldintzak hobetu direla. Batez ere jatorrizko kontratuaren honako alderdi hauek aldatu dira:

- Bankuen diferentziala jaitsi da, % 3,25etik % 1,50era pasatuz.
- Jatorrizko kontratuan jasotako cash sweep-ak ezabatu dira.
- Inbertsiotarako edo amortizazio boluntariorako urteko soberazko kutxa erabiltzeko askatasuna.
- 2011n sinatutako mailegu-kontratuaren klausulak sinplifikatzea.

Era horretan, sozietatearentzako aurrezpen garrantzitsuak egiten dira, eta jatorrizko kontratuan sinatutako hasierako baldintza operatiboak malgutzea lortzen da.

Gainera, 2017an kontratu bidezko derrigorrezko zenbatekoaz gain, 5.000.000 gehiago itzuli dira, honela foru sozietatean zorpetze maila murriztuz.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Plan ekonomiko finantzarioa modu eraginkorrean kudeatzea

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	104.213.601,80	85.495.829,13		
1.1 Ekintza				
Zorra/Ebitda ratioaren murrizpena	104.213.601,80	85.495.829,13		100,00


Entitatearen jarduketa operatiboa

Urteko helburua: Azpiegiturak egoera efizientean mantentzea, mententze kontratuetan jasotako zerbitzu mailak betetzera

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Orain arteko datara eguneratutako Ustiapen Planaren zenbatekoa / Urteko Ustiapen Planean aurreikusitako zenbatekoa	Ehunekoa	96,16	100,00	98,23	100,00

Joera

Orain arteko datara eguneratutako Ustiapen Planaren zenbatekoa / Urteko Ustiapen Planean aurreikusitako zenbatekoa – Ehunekoa



Memoria

(HO.69) Azpiegiturak egoera efizientean mantentzea, mantentze kontratuetan jasotako zerbitzu mailak betetzera. Urteko Ustiapen Planean aurreikusitako zenbatekoarekiko 2017an %98,23a bideratu da eta 2016an %96,16a. Aurreikusitako zenbatekotik dagoen desbideraketa ez da esanguratsua eta esan daiteke ustiapen plana bere osotasunean betetzen dela. Helburu hau lortzeko burutzen den jarduerari dagokionez, urteko ustiapen planaren jarraipena ahalik eta zorrotzena izatean lan egiten da. 2017an esaterako, planean jasotako ekintzak burutzen direla ziurtatzeko jarraipen zorrotzagoa egin da. Horretarako, azpiegituren mantentze eta ustiapen zerbitzuaz arduratzen den operadoretik jasotzen den informazioa kontrolatzeko metodologiak egokitu eta hobetu dira, beti helburua azpiegiturak egoera efizienteenean mantentzea izanik.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

AP-1/AP-8 autobideetako 2017 urteko ustiapen planaren garapena

Ordainketa kredituak


	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	20.484.767,10	21.260.106,78		
1.1 Ekintza				
AP-1/AP-8 autobideetako 2017 urteko ustiapen planaren garapena	20.484.767,10	21.260.106,78		100,00

Urteko helburua: 2016-2020 urteen artean, AP-8/AP-1 autobideetan, aparteko berrinbertsioaren bost urteko plangintzaren betetzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2017-ko Aurreikuspena	2017-ko Erreala	Agintaldiko helburua
Orain arteko datara buruturiko CAPEXaren zenbatekoa/ 2016-2020 epealdirako aurreikusitako CAPEX metatuaren zenbatekoa 2016, 2017 eta 2019 urteetarako hurrenez hurren	Ehunekoa	14,01	50,00	36,99	68,00

Joera

Orain arteko datara buruturiko CAPEXaren zenbatekoa/ 2016-2020 epealdirako aurreikusitako CAPEX metatuaren zenbatekoa 2016, 2017 eta 2019 urteetarako hurrenez hurren – Ehunekoa



Memoria

(HO.70) 2016-2020 urteen artean, AP-8/AP-1 autobideetan, aparteko berrinbertsioaren bost urteko plangintzaren betetzea.

2016, 2017, 2018 eta 2018 urteetarako hurrenez hurren AP-8/AP-1 autobideetan burutu beharreko aparteko berrinbertsioen plangintzan aurreikusitako zenbatekoei dagokionez, 2016 eta 2017 urteetarako aurreikusitakoa bere osotasunean bete dela esan daiteke, honela 2016an lau urteetarako aurreikusitako zenbatekoaren %14,01a eta 2017an %36,99a aparteko berrinbertsio lan hauetara bideratzera konprometitu delarik foru sozietatea.

Helburu hau lortzeko, foru sozietateko departamentuetan, lan hauek gauzatzeko burutu beharreko ekintzak aurrera eramaten dira.

Aipatzekoa da, 2017an, 2016rako eta 2017rako planean aurreikusitako lanak gauzatzeko ekintzak burutu direla, honela atzeratuta zeudenak martxan jarri eta planean jasotakoa betetze aldera. 2017an, beraz, 2016an eta 2017an aparteko kontserbaziorako aurreikusitako zenbatekoak obren enkargu bidez guztiz konprometituak geratu dira.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

2016-2020 urteen artean, AP-8/AP-1 autobideetan, aparteko berrinbertsioaren bost urteko plangintzaren betetzea

Ordainketa kredituak

Hasierako
aurrekontua

Gauzatzea Sarrera lotua Aurreratze
gradua

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	36.220.655,10	41.784.915,93		
1.1 Ekintza				
AP-8/AP-1 autobideetako aparteko kontserbazioan berrinbertsioa	36.220.655,10	41.784.915,93		100,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILEAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.370.667,00	1.127.393,56	82,25
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	44.303.334,00	46.242.554,13	104,38
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS	34.109.753,00	35.381.017,92	103,73
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	79.783.754,00	82.750.965,61	103,72
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	17.072.235,00	22.906.775,99	134,18
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	17.072.235,00	22.906.775,99	134,18
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS	64.063.035,00	42.883.110,23	66,94
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	64.063.035,00	42.883.110,23	66,94
Guztira / Total	160.919.024,00	148.540.851,83	92,31

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILEAREN GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	338.218,07	789.175,49		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	2.312.127,71	43.930.426,43		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS	35.381.017,92			
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	38.031.363,70	44.719.601,92		
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	4.581.355,20	18.325.420,79		
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	4.581.355,20	18.325.420,79		
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS	42.883.110,23			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	42.883.110,23			
Guztira / Total	85.495.829,13	63.045.022,71		
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %	53,13	39,18		

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS				
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS				
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS				
4. OHIKO DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES				
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES	127.392.052,00	130.019.355,26	102,06	
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	127.392.052,00	130.019.355,26	102,06	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL DIRU LAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital				
8. FINANTZA AKTIBOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS	33.526.972,00	9.999.000,00	29,82	
9. FINANTZA PASIBOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	33.526.972,00	9.999.000,00	29,82	
Guztira / Total	160.919.024,00	140.018.355,26	87,01	